# JOSETXO ASTARLOA, ACB-KO GURE ORDEZKARIA

Oso gazterik, 16 urte beteak zituen garaian, ekin zion ermuar gazte honek bere ogibide izango zuen kirolari, saskibaloiari hain zuzen ere.

Gaur egun, 26 urte eta 2 metro eta 6 zentimetroko garaiera dituen Josetxo Astarloa, ACBko Murcia saskibaloi taldean dabil Euskal Herriko talde gehienetan gogor lan egin ondoren, berak hainbeste desio zuen mailan jokatzeko aukera iritsi zaiola.

85. urtean hasi zen bere ikastetxe zuen Eibarko La Salleko saskibaloi taldean, eta bertan jardun zuen Donostiako Juven taldeak berarengan begiak jarri zituen arte.

1987an Durangoko Tabirakon aritu ondoren, Bilboko Caja Bilbao taldean junior mailan aritu izan zen 90. urterarte.

Asturias aldean beste bi urtez, Lagisa taldean jokatu zuen berriz ere. 91. urtean Bilbora itzuli zen. 94. urterarte Caja Bilbao-n ibili ostean, nahiz eta ACBra igotzeko aukera izan, diru arazoak zirela eta, Bilbao Patronato talde berria sortu eta bertan aritu zen beste urtebetez.

Iaz ordea, aurten bere taldea duen Murciak eskaintza ona egin eta ACBn jokatzeko aukera eman zion.

Bi urtetako kontratua du Murtziakoekin eta Euskal Herrira itzuli nahi duen arren, eskaintzarik jasotzen ez duen bitartean han jarraitzeko ilusioz dago.

Ermura oso gutxitan etortzen da, azkenengoz Gabonetako jaietan, hiru egunez izan bazen ere. Aste Santuko jaietan ez da oporrik izan Josetxorentzat eta lerro hauek bere arreba Inesekin izan genuen solasal-



DIETETIKA ZENTROA

IZADI

Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52

HERBODIETETIKA • KOSMETIKA NATURALA
SENDABELARRAK • ERREGIMENEKO ELIKAGAIAK

OKINDEGIA
Ignacio Peña



Okindegiko ☎ : 17 01 69
Etxeko ☎ : 17 14 55

Goienkalea, 12 - behea *ERMUA*

Urdaitegia
MAITE
Merkatu Plaza, 40
Telefonoa: 17 24 12

TXALAPARTA
TABERNA
Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

E I
AKADEMIA
ERMUA INFORMATIKA
TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA
Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 38 24

José Angel Ziarsolo Izaguirre



ELEKTRIZISTA

*Izelaieta kalea, 4*
*☎ 17 29 38 - Merkatuan, 17 47 30*




*Josetxo Astarloa aurten defenditzen dituen koloreekin.*

diari esker idatzi ahal izan dira. Hemendik gure eskerrik beroenak ematen dizkiogu, eta bere neba Josetxori saskibaloi mundu horretan gogor jarrai dezala eskatzen diogu.

ASIER IBAIBARRIAGA

BAR
GERALEKU
Bost'erdietatik zabalik.
San Inazio, 5. • ☎ 17 00 32


IZOTZ
KONJELATUAK
Ermuko Merkatua, 54 eta 55 postuak • ☎ 17 41 01
Arrasateko Merkatua • ☎ 77 05 98


OKINDEGIA
GOZOTEGIA
San Antonio
Izelaieta, 40 Tfnoa. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tfnoa. 17 38 40
ERMUA

ALBOKA
MUSIKA ESKOLA ERMUA
- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA

OUTUMURO KAFETEGIA
- KAFE BEREZIAK
- TARTA NATURALAK
- AUKERA HAUNDIA TE ETA INFUSIOETAN
• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu